Sartu gure Webean!: www.stee-eilas.org

INFORRIA 2011-12 12

STEE-EILASeko informazio orria –Araututako Irakaskuntza Pribatua Urtarrilak 26

# 2012. URTEKO AURREKONTUAK:

## HAINBAT HOBEKUNTZA IRAKASKUNTZA PRIBATUAREN FINANTZIAZIOAN

Dakizuen bezala, joan den abenduaren 23an onartu zuen Eusko Legebiltzarrak PSE eta PPren botekin EAEko 2012. urterako aurrekontuen proiektua. Askotan salatu dugun bezala aurrekontu hauek erabat murritzaileak dira eta zerbitzu publikoak eta eskubide laboralak erasotzen dituzte. Irakaskuntza pribatuetako hainbat partidek ere jaso zituzten murrizketa itzelak eta tamalez, ikasleek, familiek eta gure eskubide laboralek ere nabarituko dute.

Hezkuntza atalerako 2.648 milioi € onartu dituzte, proiektuan zegoena baino 3.075.000 € gehiago. Ekarpenak PPk inposatu dizkio PSEri babesa emateko aurrekontuei. Diru kopuru aldetik irakaskuntza pribatura bideratu dira emendakin gehienak, 2,3 milioi zuzenean sektore horretara joango direlarik. Proiektuak kontenplatzen zituen murrizketak arindu dira neurri txiki batean:

- 0-3 zikloa finantzatzeko 500.000 € gehiago (guztira 28,6 milioi)
- Gaueko Lanbide Heziketako hezkuntza itunetarako 400.000 €
- Lanbide Heziketako ikastetxeen obretarako 400.000 e gehiago (guztira 1.2 milioi)
- Lanbide Heziketako ikastetxeen ekipamendurako 300.000 € gehiago (guztira, 2,07 milioi)
- Hizkuntzetan formaziorako 100.000 € gehiago (guztira 1,2 milioi)
- HETELekin hitzarmenerako 25.000 € gehiago (guztira 138.490 €)
- AICErekin hitzarmena berrikuntza metodologikoaz: 75.000 €
- Deustuko Unibertsitateko Deustotech Institutu Teknologikorago 500.000 €

Onartutako beste emendakinak honako hauek dira:

- Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetarako obrak: 300.000 € gehiago (guztira 5,7 milioi)
- Ikasgintzarekin hitzarmena, teknologia berriez: 75.000 €
- Ingelesean murgiltzea: 100.000 € (guztira 700.000 €)
- Atzerriko hizkuntzak ikasteko bekak BHn: 100.000 € gehiago (guztira 1,5 milioi)
- Irakasleen Formazio Planerako 200.000 € gehiago (guztira 1,4 milioi)

Egindako aldaketak ez dira nahiko, zerbitzu publikoa bera kolokan jartzeaz gain ez dutelako irakaskuntza pribatuko langileen lan baldintzak hobetzera jotzen. Gainera, orain arte bezala jokatzen badute, gure patronalek murrizketa horiek langileengan zamatuko dute, berriro ere. Dagoenekoz lansarien izozketa iragarri digute 2012. urterako, esan gabe izozketa hori murriztutakoaren gainetik dagoela egina. Horren ondorioz, %8 eta 9 bitarteko galera izan dugu orain arte gure eroste ahalmenean.

ARABA: Eulogio Serdan, 5 01012 Gasteiz ☎ 945 14 11 04 🖷 945 14 43 02 araba@stee-eilas.org
BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) 48003 Bilbao ☎ 944 10 02 98 🖷 944 10 13 60 bizkaia@stee-eilas.org
GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea) 20015 Donostia ☎ 943 46 60 00 🖷 943 45 36 27 gipuzkoa@stee-eilas.org
NAFARROA: Descalzos, 72 (lonja) 31001 Iruñea ☎ 948 21 23 55 🖷 948 22 97 90 nafarroa@stee-eilas.org

# PRESUPUESTOS 2012:

## ALGUNA MEJORAS EN LA FINANCIACIÓN DE LA ENSEÑANZA PRIVADA

Como ya sabéis, el pasado 23 de Diciembre y con los votos de PSE y PP, el Gobierno Vasco aprobó los presupuestos de la CAPV para el año 2012. Hemos denunciado muchas veces que estos presupuestos son totalmente restrictivos y que atacan tanto a los Servicios Públicos como a los derechos laborales. Las partidas dirigidas a la enseñanza privada también tuvieron recortes importantes y por desgracia, el alumnado, las familias y nuestras condiciones laborales lo van a notar.

En el apartado de Educación se han aprobado 2.648 millones de euros , 3.075.000 € más que lo que estaba marcado en el proyecto de presupuestos. El PP ha impuesto las modificaciones al PSE a cambio de apoyar los presupuestos. La mayor parte de ellas se han utilizado para aumentar algunas partidas de la Enseñanza Privada, en concreto 2,3 millones de euros más. Los recortes que marcaba el proyecto de presupuestos se han reducido ligeramente:

- Para financiar el ciclo 0-3 500.000 € más (total 28,6 millones)
- Para la Formación Profesional nocturna en centros concertados 400.000 €
- Para obras en centros de Formación Profesional 400.000 € más (total 1.2 millones)
- Para equipamiento de centros de Formación Profesional 300.000 € más (total 2,07 millones)
- Para formación en idiomas 100.000 € más (total 1,2 millones)
- Para el acuerdo con HETEL 25.000 € más (total 138.490 €)
- Para el acuerdo con AICE sobre renovación metodológica: 75.000 €
- Para el Instituto Tecnológico Deustotech de la Universidad de Deusto 500.000 €

Otras modificaciones aceptadas son:

- Obras centros de Educación Infantil y Primaria:300.000 € más (total 5,7 millones)
- Acuerdo con Ikasgintza para mejora tecnológica: 75.000 €
- Inmersión en el inglés: 100.000 € más (total 700.000 €)
- Becas para estudiar idiomas extranjeros en Secundaria: 100.000 € más (total 1,5 millones)
- Para el Plan de Formación del Profesorado 200.000 € más (total 1,4 millones)

Las modificaciones realizadas son insuficientes ya que estos presupuestos siguen poniendo en jaque al propio servicio público y además no van dirigidas a mejorar las condiciones laborales del personal contratado en la enseñanza privada. Por si fuera poco, nuestras Patronales, si siguen comportándose como hasta ahora, pueden repercutir de nuevo estos recortes en los trabajadores. Nos han impuesto una congelación salarial para el 2012 sin decir que está aplicada sobre unos salarios recortados desde el 2010. A consecuencia de esto, hemos perdido hasta ahora nuestro poder adquisitivo entre un 8 y un 9 %.


| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| ARABA: Eulogio Serdan, 5 | 01012 Gasteiz | ☎ 945 14 11 04 | 🖷 945 14 43 02 | araba@stee-eilas.org |
| BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) | 48003 Bilbao | ☎ 944 10 02 98 | 🖷 944 10 13 60 | bizkaia@stee-eilas.org |
| GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea) | 20015 Donostia | ☎ 943 46 60 00 | 🖷 943 45 36 27 | gipuzkoa@stee-eilas.org |
| NAFARROA: Descalzos, 72 (lonja) | 31001 Iruñea | ☎ 948 21 23 55 | 🖷 948 22 97 90 | nafarroa@stee-eilas.org |